



# Zuraide indarrean Souraïde dynamique


Zuraideko Talde Abertzalea  
7. Zenbakia – 2017ko uztaila

“ Beti indartsu eta bere gogoeta eta hartu erabakiak herritarrekin partekatu nahian, Zuraide Indarrean taldeak (jadanik!) bere 7garren informazio orria aurkezten dizu. Aramaioko dantzarien bisitarekin, Korrikaren pasaiarekin eta jende anitz bildu duen « Demain » filmaren proiektioarekin, martxoa eta apirila hilabete aberatsak izan dira. Lerro horietaz baliatzen gira ekitaldi horietan parte hartu duten Zuraidar eta hautetsien eskertzeko.

Gure azken kazeta plazaratu genuenetik, bi herriko kontseilu baizik ez dira izan, eta horietan gure sinesteen defendatzen segitu dugu. Haatik, gure hautetsia bi bilkura « informaletara » gonbidatua izan da... Oposizioarekin elkarrizketatzeko nahikeriaren seinale bat dea? Herriko etxeko gehiengoa, proposamen indar bat girela ohartu dea...?

Argitalpen huntan gure herri eta lurraldeari buruzko ikuspuntu eta gogoeta batzuk aurkituko dituzu (eskola, herri barnaren antolaketa, hauteskundearen emaitzak...), baita zentzuzko laborantzaren sostengatzeko, sustatzeko eta laguntzeko dugun nahikeria erakusten duen artikulu bat ere.

Irakurketa on!



## Hauteskundeak

Ez da dudarik, Euskal Herria desberdina da!

Frantziak politika klasearen arraberritze nahikeria baizik ez duen garai horretan, hara non Bourbon jauregira, profesionalismo politikoa sentiarazten duten diputatu batzuk bidaltzen ditugula (Lassalle, Lasserre, Bru).

Erran behar da ideia original eskasean, batzuk, toki onean memento onean sartzeko antzean, aditu bilakatu direla.

Seigarren bozka-eremuan, orain dela 5 urte UMPko hautagaiaren ordezkari aurkeztu zen eta geroztik UDlko kide izan den Vincent Bruk, MODEMak bere burua Errepublika Martxan-eko hautagai gisa inposatzea lortu du. Ze artea!

Ez da harrizkoa orduan, holako baldintzekin, abstentzioak marka historikoak hausten dituela. Bi bozkatzailetatik batek ez du gehiago bozkatzen!

Proiektu konfrotaziorik gabeko buruz-buruko horien aitzinean, bozka abertzaleak (EHBAI + EAJ) gora segitzen du, eta parte hartzea apalagoa izanik ere, 2 000 boz irabazten ditu, 2012tik hona.

Gure bozka eremuan, Peio Etcheverry-Ainchart, bozka bat adierazi dutenen artean %9.78tik %12ra pasa da, eta Zuraiden, 2. tokian kokatu ere da.

Macron efektuz baliatu den « auzoaren » hautagaitza eta abstentzioa gora izanik ere, kontestu gogor horretan, emendatze horrek pozten gaitu: talde lanak fruituak ekartzen ditu, eta politika-taktikak ez dira hautesleen bozen biltzeko molde bakarrak.

# ZIRIMIRI

● ● ● Milesker handi bat herriko etxeari noski, baina ere aurten Korrika eskuzabaltasunez sostengatu duten Zuraideko elkarte eta enpresei. Bildu diren 1 525€ak eskola-kanpoko euskararen erakaskuntzarentzat baizik ez dira baliatuak izan.

● ● ● Gaur egungo eskola publikoko zuzendari den Nathalie Carricart-ek nahi zuen eta lortu duen leku aldaketak pozten gaitu. Bere profesionalismoa eta eskola berri hortan elebitasuna kontutan hartu duen kalitatezko irakaskuntza baten plantan ezartzeko engaiamendu berezia estimatu ditugu.

● ● ● Iragan urtarilaren 1ean sortu zen Euskal Hirigune Elkargoak bere lan batzordeak herrietako hautetsi guzietan idekitzeaz pozten gira, gehiengoan ez diren hautetsiak ere bertan sartzen ahal baitira. Zuraideko auzapezari ez zaio baliagarri iduritu herriko kontseiluari erabaki horren berri ematea. Berdin du, horrek ez du gure ordezkaria oztopatu, lehenetarik izan ditaikeleko izena ematen bi batzordetan lan egiteko.

● ● ● Aitzineko kazetan, Alaiki dantza taldea lagun, Arabako Aramaio herrira egin genuen ateraldiaren berri eman genizuen.

Elkarretaratze hortatik, elkar ezagutzeko eta trukatzeko baliagarria den dantzaren inguruko topaketa ideia atera zen.

Ingurumen hortan, martxo hondarrean bi herrietako hogeitaz hamar elkarretaratu zituen asteburua antolatuta genuen, elkarren arteko dantzen ikasteko. Milesker handi bat Pettan eta Amadeori, haiek gabe elkarretaratze hori ez baitzen egiten.

Milesker ere bai sukaldariei, asteburu hori, lagun arteko momentuz jantzi baitute, izan dantzari ... eta laguntzaileentzat ere.

● ● ● Herriko kontseiluak ahalmen biziki zabalak izanki, « herriko kontseiluak bere erabakiez » finkatzen ditu. Horregatik, martxoaren 8an proposatua izan zaio herriko argiaren eta baloi fluoreszenteen aldatzeaz bere iritzien ematea. Erran behar da aldaketa horren gastuak 299.46€koak zirela herriarentzat! Puntu horrek ez du eztabaidarik sortu eta ahobatezkotasunean bozkatua izan da.

Kontseilu berean, eskola ohiaren zaharberritzeari buruz hartu erabakien berri ere eman zuen auzapezak. 258 233.68€tara igotzen den diru zama batentzat haatik, kontseiluko bozkatik pasatzea ez zitzaien beharrezkoa iduritu!!!

● ● ● Sudmine-en urre bilatze proiektuaren kontrako bide seinaleak lotu dituzte hunkiak diren herriek.



## Hirugarren gela... « berriz aipatuko dugu »-la erran zuen auzapez jaunak 2016/11/29ko herriko kontseiluan

Guk pentsatzen genuen etorkizun hori orainera pasa behar zela, eta aitzinkontuari zuzenduriko kontseilu hori aitzakia ona zela horren aipatzeko... eta hitzetatik ekintzetara pasatzeko! Aitzinkontu hortaz egin genuen azterketak erakusten zigun arras posible zela, finantzen aldetik, irakasleek eta burasoek aldarrikatzen zuten eta guk ere beharrezkoa ikusten genuen hirugarren gelaren eraikitzeo beharrezkoak diren obren programatzea.

Harriturik utzi gaitu larrialdirik gabeko eta sekula entzun ez genituen obra batzuentzat proposamenak eginak zirela eta eskola hori gure gazteek behar eta merezi duten zinezko irakaskuntza tresna egoki bat bilakatuko luken inbestitze xumea ez zela aurreikusia ikusteak. Horregatik proposatu genuen 2017ko aitzinkontuan herriko obratze eder hori bukatuko lituzkeen obren sartzea. Elkor egon dira! Heldu den urtean, hitzeman!

Hurbiletik zainduko dugu...

## Herri barnaren antolaketa

Azken bi urteetan, eskola berriaren eraikuntza, pilota plazaren itxuraldaketa, komuna publikoen agertzea eta herri barneko zirkulazioaren aldaketa ikusi ditugu. Eta hemendik gutira, eskola ohia okindegi eta apartamendu batean eraldatzen duten obren bukaera ere ikusiko dugu. Ekintza desberdin horietaz eta haien eginmoldeaz pentsatzen genuena erran izan dugu aitzineko kazetetan.

Baina zuraidar oro bezala, jakin nahi genuke zeren itxura ukanen duen herri barnak, bukaeran... Proiektu orokorraren koherentziaren ikusteko zailtasunak ditugu, eta ez gaitu herriko kontseilu « informal » batean aurkeztua izan zaigun estudioak anitz lasaitu: azalekoa zen, eta dokumentu bakar bat ere ez da banatu.

Larresoron, gogoeta komisioan eraman da, ondotik herriko kontseiluan eztabaidatu da, eta bukatzeko, herri barneko biztanle guzietan aurkeztua izan zaie ontzat eman aitzin, eta ondotik baizik ez da egin. Bidarten, herritarrek herri barnean kokatua den posta ohiaren zaharberritzearen partaler dira. Zergatik ez ote da gardentasun bera Zuraiden? Denek irabaztekoa genuke.

Gure aldetik, Etxetoa eta herri barna lotuko dituen bizikleta bide baten sortzearen eta haur eta gazteendako joko eremu baten sortzearen proposamenak errepikatzen ditugu. Ez da oraindik berantegi herriko etxean aukerkezen baten emateko eta herritarren iritzia galdegiteko.

## Laborantza

Ekainaren 10ean Sud Ouest egunkarian agertu artikulua batek [www.uramap.net](http://www.uramap.net) webgunearen bisita egitera bultzatu gaitu. Bertan jakin dugu herriko etxeak eta Errobi Herri Elkargoak laborantzari loturiko botatze bakteriozientziaren analisi emaitza ezin txarragoak ukan dituztela.

Horra, gure atean, laborantza intentsiboaren ezaugarri lanjerosak konfirmatuak direla: mozkinen entrabaleko kalitatea, kimikaren eta antibiotikoen erabilpena, kutsadura handiak, ekoizpen makinak bilakatu diren abereen gaizki-izatea, maileguen ordaintzeko buru-belarri lanean arituz laborari-esplotatuak bilakatuak diren laborarien gaizki-izatea. Laborantza mota hori bankuei eta indutria agro-alimentarioari baizik ez zaie baliagarri.

Alderantziz, Euskal Herrian ausarki garatua den laborantza herrikoia, naturaz eta bizidunegaz axolatzen diren zentzuzko neurriko etxaldez eginga da, kontsumitzaileekin harreman zuzenen sortzaile da (merkatuak, AMAP...), batzuen lanari eta besteen kontsumoari zentzua emanez. Enplegu sortzaile den laborantza hori dugu sostengatu nahi, gure kultura baita eta ezinbestekoa baita. Horregatik, autoritateek afera horri emanen dituzten segidei adi egonen gaitzaizkie.



# Zuraide indarrean Souraïde dynamique

Groupe Abertzale de Souraïde

Numéro 7 – Juillet 2017

“


*Loin de s'essouffler et toujours désireux de partager ses réflexions et ses prises de position avec la population, Zuraide Indarrean vous propose ici (déjà !) sa 7ème feuille d'information.*

*Les mois de mars et avril ont été riches en événements avec la venue des danseurs d'Aramaio, le passage de Korrika et la projection du film "Demain" qui a attiré une assistance nombreuse. Nous profitons de ces quelques lignes pour remercier élus et zuraidars qui ont répondu présents à ces manifestations.*

*Depuis la dernière édition de notre gazette, il n'y a eu que deux conseils municipaux où nous avons continué à défendre nos convictions. En revanche, notre élu a été convié à deux réunions « informelles »... Cela présagerait-il d'une volonté de dialogue avec l'opposition ? La majorité municipale réaliserait-elle que nous pouvons être force de propositions... ?*

*Vous trouverez dans cette édition nos points de vue, nos réflexions sur quelques thèmes importants concernant notre village et notre territoire (école, aménagement du bourg, résultats des élections...) et un article montrant notre volonté de soutenir, encourager et accompagner une agriculture raisonnée.*

*Bonne lecture !*



## Élections

Décidément, le Pays Basque est différent !

À l'heure où la France ne jure plus que par la volonté de renouvellement

de la classe politique, voilà que nous avons envoyé au Palais Bourbon des députés dont les noms (Lassalle, Lasserre, Bru) fleurent bon le professionnalisme politique.

Il faut dire qu'à défaut de produire des idées originales, certains sont devenus experts dans l'art de se faufiler, au bon endroit, au bon moment.

Dans la sixième circonscription, Vincent Bru, suppléant de la candidate UMP il y a cinq ans, encarté par la suite à l'UDI, a réussi à ce que le MODEM l'impose comme candidat de La République en Marche. Du grand art !

Comment s'étonner, dans ces conditions, que l'abstention ne batte des records historiques. Plus d'un électeur sur deux ne vote plus !

Face à ces duels sans confrontation de projets, le vote abertzale (EHBAI + PNV) poursuit sa progression et, malgré une participation plus faible, gagne plus de 2 000 voix par rapport à 2012.

Dans notre circonscription, Peio Etcheverry-Ainchart passe de 9.78% à 12% des suffrages exprimés et, à Souraïde, il arrive même en deuxième position au premier tour.

Dans un contexte difficile marqué par une forte abstention et par la candidature du « voisin », bénéficiant de surcroît de l'effet Macron, nous nous réjouissons de cette progression qui démontre que le travail collectif paye, et que la tactique politicienne n'est pas le seul moyen d'obtenir les voix des électeurs.

# ZIRIMIRI

● ● ● Un grand merci à la mairie bien sûr, mais aussi aux associations et aux entreprises de Souraïde qui ont très généreusement soutenu Korrika cette année. Les 1 525 € collectés sont exclusivement affectés à l'enseignement de l'Euskara pour les non-scolaires.

● ● ● Nous sommes très heureux pour Nathalie Carricart, actuelle directrice de notre école publique qui vient d'obtenir une mutation conforme à ses vœux. Nous avons apprécié son professionnalisme et son engagement tout particulier pour mettre en place un enseignement de qualité dans cette nouvelle école, incluant la mise en place du bilinguisme.

● ● ● Nous nous réjouissons que la Communauté d'Agglomération Pays Basque, née le 1<sup>er</sup> janvier dernier, ait décidé d'ouvrir ses commissions de travail à tous les conseillers municipaux, y compris lorsqu'ils ne font pas partie de la majorité. Monsieur le maire n'a pas jugé bon d'en informer le conseil municipal de Souraïde. Aucune importance, cela n'a pas empêché notre représentant d'être sans doute un des premiers à s'inscrire pour travailler dans deux de ces commissions.

● ● ● Nous vous avons informés dans notre précédente gazette de notre déplacement en Hegoalde, à Aramaio, accompagnés du groupe de danse Alaiki. À cette occasion est née l'idée de rencontres, autour de la danse, donnant l'occasion à chacun de se découvrir et d'échanger. C'est dans ce cadre que nous avons organisé, fin mars, un week-end qui a permis à une vingtaine de danseurs des deux villages, de se rencontrer pour un stage de danse commun. Un grand merci à Pettan et Amadeo sans qui cette rencontre n'aurait pu se faire. Et merci aussi aux cuisinier(e)s qui ont permis de ponctuer ce week-end de moments conviviaux pour les danseurs (... et les accompagnateurs).

● ● ● Le conseil municipal ayant des attributions très larges, il se charge de régler « par ses délibérations les affaires de la commune ». C'est sans doute à ce titre qu'on lui a proposé lors du conseil du 8 mars de se prononcer sur l'éclairage public et le remplacement des ballons fluorescents. Il faut dire que le coût pour la commune était de 299.46 euros ! Ce point n'a pas provoqué de débats et a été voté à l'unanimité.

Lors de ce même conseil, Monsieur le maire a rendu compte des décisions qu'il avait prises concernant la réhabilitation de l'ancienne école. Nul besoin de passer par un vote du conseil municipal pour ce montant qui s'élevait à 258 233,68 euros !!!

● ● ● Les villages concernés par le projet de recherche d'or de Sudmine ont apposé des panneaux le refusant.



## La troisième classe... « on en reparlera », avait dit monsieur le maire lors du conseil municipal du 29/11/2016

Nous pensions qu'il fallait transformer ce futur en présent et que le conseil du 5/04/2017, consacré au budget, était l'occasion d'en parler... et de passer à l'acte ! L'analyse que nous avons faite de la proposition de budget montrait qu'il était tout à fait possible, financièrement, de programmer les travaux nécessaires à la réalisation de la troisième classe. Les parents et les enseignants la réclamaient et nous la jugeons, pour notre part, indispensable.

Nous nous étions surpris de constater que des propositions étaient faites pour des travaux sans aucune urgence et dont nous n'avions jamais entendu parler alors que l'investissement modeste qu'il restait à accomplir pour faire de cette école une réalisation réellement à la hauteur des besoins de l'enseignement de notre jeunesse n'était pas prévu. Nous avons proposé que le budget 2017 inclue les travaux nécessaires à la finalisation de cette belle réalisation communale sans être entendus ! L'année prochaine, c'est promis ! Nous y veillerons...

## Aménagement du bourg

Depuis deux ans maintenant on a vu s'ériger la nouvelle école, transformer le fronton, apparaître des toilettes publiques, modifier la circulation dans le bourg et très prochainement, nous allons voir s'achever la transformation de l'ancienne école en une boulangerie et un logement. Nous nous sommes exprimés sur ces différentes opérations et sur les conditions dans lesquelles elles ont été réalisées dans les précédentes gazettes.

Mais, comme tous les Zuraidars, nous aimerions savoir à quoi ressemblera le bourg, à la fin... On a du mal à voir la cohérence du projet global et ce n'est pas l'étude présentée lors d'une réunion « informelle » du conseil municipal qui nous a rassurés. Celle-ci est en effet apparue plus que sommaire et aucun document n'a été diffusé.

A Larressore, la réflexion a été conduite en commission, puis discutée en Conseil Municipal, et enfin présentée à tous les habitants du bourg avant d'être validée, puis mise en œuvre. A Bidart, la population est largement associée au projet de réaffectation de l'ancienne poste située au cœur du bourg. Pourquoi n'y a-t-il pas la même transparence à Souraïde ? Nous aurions tous à y gagner.

Pour notre part, nous maintenons notre proposition d'une piste cyclable entre Etxetoa et le bourg, ainsi que la création d'une zone de jeux pour enfants. Il n'est pas trop tard pour mettre en place une présentation en mairie et inviter la population à se prononcer.

## Agriculture

Un article du journal Sud-Ouest du 10 juin nous a incités à consulter le site [www.uramap.net](http://www.uramap.net) qui nous apprend que la mairie et la communauté de communes Errobi ont été destinataires des résultats d'analyses catastrophiques liés à des rejets agricoles bactériologiques.

Voilà, à notre porte, ce qui confirme le caractère dangereux de l'agriculture intensive : médiocre qualité des produits, recours massifs à la chimie et aux antibiotiques, pollutions majeures, mal-être animal réduit à machine à produire (du lait, de la viande, des œufs...), mal-être paysan devenu exploitant-exploité réduit à travailler sans relâche pour rembourser ses prêts. Cette agriculture-là ne profite qu'aux banques et à l'industrie agro-alimentaire.

A l'opposé, l'agriculture paysanne largement développée dans notre Pays Basque, est faite de fermes de taille raisonnable, respectueuse de la nature et des êtres vivants, tissant de plus en plus de contacts directs avec les consommateurs (marchés, AMAP...), donnant du sens au travail des uns et à la consommation des autres.

C'est cette agriculture, génératrice d'emplois, que nous voulons soutenir car elle est notre culture, et qu'elle est vitale. C'est pourquoi nous serons vigilants quant aux suites données par les autorités à cette affaire.